



KABITIK PLAZARA TXOLARREA HEGAKA

Txolarre irratia 'Kabitik plazara' ekimena jarri du abian; bertso emanaldiak eta herri kirol saioak izango dira >5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-02-10

VIIURTEA 1.625.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Miguel Mari Elozegi 'Luze', herenegun, Betelun eginiko saioan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

MIGEL MARI ELOSEGI 'LUZE' FINALERDIETAN ARITZEKO SAILKATU DA

LEITZA Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren kanporaketa jokatu zuten herenegun Betelun; leitzarrak bigarren postua lortu zuen 7

D3M eta Askatasuna baliogabetu dituzte

POLITIKA PSE-EE eta PP ez beste alderdiek herritarrek nahi duten ideia bozkatzeko eskubidea dutela esan dute erabakiaren aurrean 3



Herenegun 150 lagun inguru elkartu ziren manifestazioan. R. CALVO

Herritar ugarik babesa adierazi dio Peio Olanori

LIZARTZA Otaolari «herio-mehatxua egiteagatik» gaur du epaiketa Entzutegi Nazionalan 6



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare bat du

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-65 56 95
harpidedun kodea eskura duzula

Jasotako del guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridunen izenak otsailaren 13ko egunkarian.

BRUESA GBC
Iurbentia Bilbao Basket

IGANDEA

OTSAILAK **15-12:30**

ILLUNBE



TXOKOA hitza

Hainbat aste puntan egon ostean, lidertza galdu du Tolosa CFk

Futbola » Berio izan zuten aurkari larunbat arratsaldeko partidari eta bietako inork ez zuen lortu golik sartzerik.

ERREDAKZIOA

Asteburuko jardunaldiaren ostean lidertza galdu du Tolosa CFk. Berioaren aurka jokatu zuen larunbatean eta berdinketarekin amaitu zuten partida, 0-0, hain zuten.

Tolosa zen norgehiagokako faborito, eta lehendabiziko postuan mantentzea zuen xede, baina Berioarekin gogor eutsi zioten, eta partida amaierara arte ez zieten utzi golik sartzen. Bitako edozeinek irabazi zezakeen jardunaldia, baina ez zuen inork garaipenik lortu. Asteburukoaren ostean Aloña Mendik kendu dio lehen postua Tolosa CFri. Hurrengo partida sailkapeneko zortzigarren postuan dagoen Pasaiaen aurka izango dute urdinek.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosaga: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

58-86 galdu du Bidebide Ibizak Leccrerc liderraren aurka

Saskibaloia » Partida txukuna jokatu bazuten ere, ezin izan zuten irabazi; hurrengo aukaria Baskonia izango dute.

ERREDAKZIOA

Liderraren aurka, partida txukuna egin arren ezin izan zuten Ardoiaren aurkako partidari emaitza onik eskuratu Bide Bide Ibizako jokalariek.

Asteazken Joseba berriro ere

lesionatu egin zen, eta Iñigok ere lesionatuta jarraitzen du.

Anoetan bisitari etorri zen taldea ez zen nola nahiko taldea, Leccrerc hain zuten ere. Multzoko liderra eta EBAratigotzeko hautagai nagusietako bat. Horrek Anoetan ikusmin handiasortu zuen eta harmailak bete zituen.

Taldeak gogor ekin nahi zion partidari. Bigarren faseari begira emaitzak eraginik izan ez arren lan ona egin nahi zen. Horretarako taldeak taktikoki aldaketa berriak sartu zituen, 6 jokalarirekin aurka-

ria partidatik ateranahi izan zuten. 6 jokalarirekin lana belauniko ez-kutatuta egotea zen ondoan pasatzen ziren jokalariei blokeoak eginenez. Baina epaileak horretaz ohartarazi eta ezin izan zuten taktika berriarekin jarraitu.

Taktika berriak eduki arren kanpotarrak izan ziren nagusi lehen minutuetan 0-9ko partzialarekin. Etxekoak lan handia egin arren ez zuten markagailuan gerturatu lortu lehen laurdenean. (11-20, 10. minutuan)

Atsedendaldirako bidean kanpo-

tarren barneko jokoak min handia egin zuten. Erreboteko lana eta bizkarrez eginiko mugimenduetan baliatuz abantaila handitzea lortu zuten. (24-38, 20. minutuan)

Bigarren zatia lehenengoaren errepikapena izan zen. 37-50 gerturatu arren Merinok eskatutako hutsartean ondoren 0-9ko beste partzial batekin partidua erabakita utzi zuten hirugarren laurdenean. Partida amaitzeko gelditzen ziren minutuak kanpotarren nagusitasuna konfirmatzeko balio izan zuten. Amaieran 58-86 egin zuten.

Hurrengo astean Baskoniaren aurka jokatu beharko dute Bide Bide Ibizakoek Gasteizen. Inauterian atarian taldeak lanerako mozorro jarri beharko du partidairabazian ahal izateko.

AHTren inguruko bideo proiektzioa gaur

Gizartea » AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta trenaren inguruko filma izango da ikusgai gaur, Amaroako Auzoetxan.

ERREDAKZIOA

AHT Gelditu! Elkarlanak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Esaterako, gaur 19:00etan, Amaro zuzoan, AUzoetxan, *AHT: zer ari zaizkigu ezkatzen?* filma izango da ikusgai. Proiektzioaren ostean eztabaidarako tartea izango da. AHT Gelditu! Elkarlanak egindako azken bideoa da ikusi ahal izango dena, eta kanpaina honetako zenbait kidek parte hartuko dute bertan.



Joan den astean kaltetuak eta alkateak elkartu ziren bilera egiteko. N. URIBIZU

Larunbaterako berriz, eskualde mailako manifestazioa deitu dute. 17:00etan, Triangulo plazatik abiatuko dira, «Abiadura Handiko Trenari ez esateko».

Ekimen hauekin Elkarlaneko kideek ozen adierazi nahi dute nola edo hala «isilarazi nahi duten kontrako jarrera». Bestalde, elkartasuna helarazi nahi diete kalte duinei eta kaltetutako herriei.

Egitasmoaren baitan, joan den astean kaltetuen eta Udalen arteko bilera izan zen Alegian. Honez gain, AHTren kontrako bizikletamartxa ere antolatu zuten, baina eguraldi txarra medio, bertan behera geratu zen. Hala ere, larunbat honetako manifestazioa izango da prestatutako egitarauko ekitaldi nagusia.

Berdinketarekin amaitu da Laskorainen azkena

Areto futbola » Euskalduna izan zuten aurkari horitxoek, eta hirunakoaren amaitu zen norgehiagoka.

ERREDAKZIOA

Hiruna berdindu zuten Laskorainek eta Euskaldunak larunbateko derbian. Amaierako puntu bana-ketan baino gehiago albistea Euskaldunako aukitxoan izan zen: bertan, bi denboraldiz horitxoaren entrenatzaile izandako Jacinto Diaz eseri baitzen, zazpi urte eta gero Tolosara bueltan.

Derbia interesgarria suertatu zen, maila politikoa. Horitxoek, beste behingoz, joko beraien sailkapeneko postuaren oso goitik dagoela frogatu zuten eta kinka la-

rrian jaitsiera sailhesteko borrokan dabiltzan Euskaldunakoez ere uste baino joko trinkoagoa eskaini zuten.

Aurtengoa ia astero gertatu den moduan, ikastolakoena izan zen baloiaren jabetza; baina beste hainbatetan bezala jokoko nagusitasun hau ezin izan zuten markagailuan islatu eta atzetik ipini zirenean aurrean ez asmatzeagatik nahiz defentsan egindako hutsengatik. 0-1 atsedendaldira eta 0-2 aldagelatetik bueltan.

Azken minutuetan ordea, etsipena antzematen hasi zirenean, horitxoek golaren giltza berreskuratuz gero eta buelta eman zioten markagailuari. Baina, zoriontasuna ez zen borobila suertatuko, azken minutuan atezain jokalariekin bitartez Euskaldunakoez hirunakoa sartu baitzuten.

Lander Gilek errekorra jarri du jubenetan

Atletismoa » Euskal Autonomia Erkidegoko estalpeko txapelketan lehiatu da, 200 metro luzeko distantzian.

ERREDAKZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko atletismoko estalpeko txapelketa jokatu zen asteburuan. Bertan lehiatu zen, jubenen mailan, Lander Gil tolosarra, eta errekorra jarri zuen 200 metro luzeko distantzian.

Norgehiagoka gogorra izan zen Lander Gil eta Luis Fernando Gomezaren artekoa. B finalean aterazi zuten eta Beitia, Latorre nahiz Gerezñu harrituta uztea lortu zuten. Gomezen izan zen garaile, eta Gipuzkoako errekorra jarri zuen



Lander Gil tolosarra. HITZA

juniorren mailan. Honek 22 segundo eta 15 ehunen behar izan zituen. Tolosarrak berriz, pixka bat gehiago. 22 segundo eta 15 ehunen.

Politika » D3Mk eta Askatasunak eguna bukatu arte dute Konstituzionalera jotzeko eta helegitea sartzeko.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak atzoko gauerdian erabaki zuen Demokrazia Hiru Milioi (D3M) hautesle plataforma eta Askatasuna alderdi politikoa baliogabetzea, Espainiako Estatuaren Abokatuaren eta Fiskaltzaren helegiteak kontuan hartuz. D3Mk eta Askatasunak ETArekin eta Batasuna lege kanpoko alderdiarekin harremana dutelakoan utzi ditu baliogabe Gorenak, eta ezingo dute martxoaren lehen Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan parte hartu.

Askatasunaren kasuan, Tolosako Manu Leunda da Gipuzkoako zerrendaburua. D3Mn, berriz, Zizurkilgo Juan Manuel Erasun da bigarren Gipuzkoako zerrendan, bozeramailea izatearekin batera. Plataformak eta alderdiak gaur gauerdia arteko epea dute Espainiako Auzitegi Konstituzionalen helegitea sartzeko. Ondoren, etziko gauerdia arteko epea izango du honek erabakia hartzeko, izan ere, uhorretan emango zaio hasiera hauteskunde kanpainari.

Datorren larunbatean ezker abertzaleak deitutako manifestazioa izango da Bilbon, «bakterketa eta apartheid politikoa eta instituzionala» salatzeko. «Salbuespen egoera amaitzeko eta Euskal Herriarentzako esparru demokrati-

Espainiako Auzitegi Gorenak D3M eta Askatasuna baliogabe utzi ditu

koa aldarrikatuko ditugu». Leloa *Demokrazia orain* izango da.

«Denek izan beharko lukete ordezkaritza legebiltzarrean»

■ **Jokin Bildarratz (EAJ)**. Batetik, Alderdien Legea dago: beti EAJ bezala lege honen kontra azaldu gara eta azalduko gara. Bigarrenik, PSE-EEk eta PPK euren hauteskundeetako kalkulazioan egiten dute lege baten erabilera. Adibidez, 2005ean zergatik ahalbideratu zuen EHAK aurkeztea? Zergatik gaur ez? Salatu behar da PP eta PSE-EE elkarrekin ari direla, berriz ere gai honekin eta ikuspegi elektoral batetik. Hirugarrenik eta ondorio bezala, aukera guztiak egon beharko lukete ordezkatuta erakunde guztietan eta gizaritako edozein kidek bilatu behar du bere ordezkaritza alderdi politikotik batengan, kasu honetan legebiltzarrean egon ahal izateko.

«Herriarrek erabakitzea defendatzen dugu gulo»

■ **Antton Karrera (Ezker Batua)**. Gure herriak erabakitze eskubidea izan behar du. Gehiengoak erabaki dezala zer nahi duen, eta hori onartu behar da. Hori defendatzen dugu. Alderdien Legearen ondorioa da hau, eta guk horren aurka, ilegalizazioen aurka, egin dugu leku guztietan. Benetako demokrazia eta justiziaren aurka dihoa, baita

konstituzioaren aurka ere. Ondorioz edozer gauza egiten ari dira. Ideia batzuk onak edo txarrak diren herriarrek erabaki behar dute.

«Bietako inork ez du ukatu Batasunarekin duten lotura»

■ **Manuel Mitxelena (PP)**. Guk aspaldi jarrera argia izan dugu. Batasuna ETArekin zati zela deklaratu zenean ados geunden. PP ez da batere kritikoa sententzia honekin, beti berdina pentsatu dugu eta baieztapen judicial honek errealitatearekin bat egiten duela iruditzen zaigu. D3Mn eta Askatasun, euren ez dute Batasunarekin lotura dutela ukatu. Beraz, logikoa da, Batasuna ETArekin zati dela demostratu baita.

«Arauk daude eta betetzen ez badira ezin da parte hartu»

■ **Oscar Renedo (PSE-EE)**. Erabaki judicialak errespetatzen ditugu, azken finean hori Auzitegiek erabakitzen dute. Arau batzuk daude eta denentzat dira, betetzen ez dituenak ez du parte hartzen. Hemen Batasunarekin eta EAE-ANV-rekin lotutako plataforma zegoen (Auzitegien arabera banda terroristekin daude lotuta). D3Mk eta Askatasunak ETArekin lotura daukate. D3Mk eta Askatasunak orain aukera bikaina dute inputatu ahal zaien hori ezeztzeko, Madrilgo

atzoko atentatua gaitzetsiz. Ez dira ideiak ilegalizatzen, baizik eta ETArekin lotutako alderdi eta plataformak.

«Konstituzionalak erabaki hori aldatzea espero dugu»

■ **Inaki Irazabalbeitia (Aralar)**. Tolosako Aralarrek gogor gaitzetsen du Auzitegi Gorenak hartu

duen erabaki hau: D3M eta Askatasuna baliogabetzea. Gure iritzia da eta beti izan da, herriar guztiak dituzte eskubideak beren gustuko ideien hautagaiak izateko eta aukera hori eman behar zaie. Espero dugu Auzitegi Konstituzionalak nolabait gorenak hartutako erabaki hori aldatzea, nahiz eta itxaropen handirik ez dugin.

«Erabaki honekin azkenean kaltetu nagusia euskal gizartea da»

JUAN MANUEL ERASUN » D3Mren bozeramailea

NEREA URBIZU

D3M plataformaren bozeramailea eta Gipuzkoako D3Mren zerrendan bigarrena da Juan Manuel Erasun (Aia, 1963).

Zein iritzi duzu baliogabetzeen aurrean?

Gertaera oso gogorra, injustizia handia ikusita Giza Eskubideen Europako ordezkariek esan duena guztiz. Hartutako erabakia erabat politikoa da, ez dago justizian oinarrituta, baizik eta politikan. Zaila da balorazio juridikoa egitea, azkenean gure abokatuek ezin dute behar bezalako lanik egin ez zaielako aukera gehiegirik ematen eta heldu leku juridikorik ez duelako. Erabat faszista da, inkisizio garaian bezala, alderdi politikoa joku kanpo daude.

Honen aurrean hurrengo pausoa zein da?

Gertatzen ari dena, ezker abertzalea edo bozka independista bat baztertu nahi dutela inoiz baino arrazoi gehiagorekin bozka hori



IMANOL GARCIA

ematera joan behar gara: bozka errebeldea, desobediaren aldekoa, independentismoaren aldekoa: Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea dauka.

Presio batzuk izan ditu Europatik Espainiak...

Behar luke izan, baina ONUk uste dugu indar edo pixu gehiago izan behar duela baina Frankismoan

bezala diktadura gogor batean bizi gara, eta Espainiako Gobernuak horie ez die kasorik egiten. Erabakia alde aurretik hartuta zuten, moztu juridiko bat jartzen ari dira baina ziur epe motzean ikusten denak ez du ondorio positiborik, ez guretzat ezta euskal gizartearentzat ere. Azken finean kaltetu nagusia euskal gizartea da.

Legebiltzarrean ez bada alderdi independentistarik zein irakurketa du honek?

Sortuko den legebiltzarra erabat mutilatua izango da, antidemokratikoa eta han hartuko diren erabakiek ez dute euskal gizarte osoa ordezkatzeko. Iruzur politikoa egiteko aukera handiak izango dira. PSE-EEk duen helburu politikotako bat hau da: iruzur politikoa egitea, horretarako EAJ bezalako alderdi aliatuak ere baditu eta horretan oinarrituz egin du, helburu jakin batekin. Garbi dagoena da estatutu terroristak bakarrik haren Espainia dela.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidreriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 180 119 Aginaga-Usubil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbitarte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta trenbideak martutenean

Mundatzen kalera, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20013 DONOSTIA

Posta elektronikoa: autobusak@diez.com



Iaz Erriberriko gazteluan ateratako argazkia, Nafarroako hegoekialdea ezagutzera egindako txangoan. AIURRI

Atzerrira bidaiia proposatzen dute aurtengo Euskal Herrian Barrena egitasmoan

Aisia » Berrikuntza horrez gain, beste urtetan antolatutakoak mantenduko ditu Manuel Larramendi Bazkunak.

ERREDAKZIOA

Euskal Herrian Barrena ekimena aurpegi berri batekin aurkeztu nahi zaigu 2009ko urtean. Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren egitasmoak ezaugarri eta funts nagusiak mantentzeaz gain ikuspegi zabaltzeko ahaleginetan, hainbat proposamen berri dakar. Hezurdura, orain arte mantendu duen dinamika berdinarekin bat dator baina Euskal Herria eta bertan bizi den egoera ezagutzeaz gain, Europako beste bazter batzuek ere ezagutzeko aukera eskaini nahi du.

Horrela, hiruzpalau urtez ekimena antolatu ondoren, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eskaintza berritu eta indartu nahi izan du 2009. urteari begira. Izan ere, 2008 urtean hainbat txango ezin izan zuen antolatu, herritarrek ez ziotelako behar adina erantzun eskaintzari. Joera horri aurre egin

nahian, Larramendi Bazkunak bere eskaintza indartu egingo du 2009an.

Hiru ardatzetan banatu du, euskarari, aisiarri eta bidaiari lotuta dagoen egitasmoa: Euskal Herrian Barrena 14 eta 17 urte bitartekoentzat, Euskal Herrian Barrena 18 eta 80 urte bitartekoentzat eta Euskal Herrian Barrena 18 eta 30 urte bitartekoentzat. 14 eta 17 urte bitartekoena eskolei zuzenduta dago. Hau da, hainbat eskoletara bidaliko dute proposamena eta adin horretako gazteei zuzenduta izango da.

Irteera monografikoak

Euskal Herrian Barrena 18-80 urte bitartekoentzat egitasmoan, besteetan bezala, gazte eta helduek parte hartu ahal izango duten egun bakarreko irteera monografikoak antolatuko dira, hauek Euskal Herriko txokoetara hurbilduko direlarik. Aurten, Zuberoa, Gaztelako bidea Araban eta Nafarroako hegoaldea izango dira hiru txangoak. Horretaz gain, 3-4 egunetako txangoak ere prestatu dira. *Euskaldunak Hispanian Barrena* leloarekin, Salamanca bisitatuko dute edo eta *Euskaldunak Okzitanian Ba-*

rrena leloarekin, Frantziako Languedoc-eko ingurua bisitatu nahi dute.

Bestalde, ekimenaren ardatz nagusia denaren harian, Euskal Herrian Barrena 18-30 urte bitartekoentzat, gazteen aisialdian euskaraz egindako eskaintza luzatzeko apostua egin dute, eta aste-buruetako txangoak berean mantenduko dituzten arren Euskal Herria bertatik bertara ezagutu dezaten, horri ikuspegi zabalago bat erantsi nahi izan diote. Horretarako, *Euskal Herriatik Europan Barrena* bezala ezagutuko dena abian jarriko da, aurten iparralde-runtz bidaiatzeko ahalegina egingez, Finlandiako herrialdea ezagutzeko grinaz, hain zuzen ere.

Dagoeneko izen-emate epea irekirik dagoelagorazarazten dute Bazkunatik eta aukera izango da otsaileko hilabete osoan zehar. Argibide gehiago edo eta interes agertzen duenak ohiko tokietan galde dezake. Tolosaldean, zehazki, Bazkunak Zizurkilen duen egoitzan: Bulandegi bidea, 23 behea. 943 69 64 50 zenbakian eta txangoak@topagunea.com helbidean ere eskatu daitezke e informazioa.

Gogoratu, azkenik, ekimen honetan nonahiko herritarrek har dezaketela parte, baina lehentasuna emango zaie Beterrri-Aiztondoko herrietakoei, hau da, Andoain, Amasa-Villabona, Zizurkil, Astasu, Aduna eta Larralgoei. Aurten, ziurrenik, baita Urnietakoei ere lehentasuna emango zaie.

Lau urre eta zilar bat Olaberriarentzat

Txirindularitza » Pistako Espainiako Txapelketan Ana Usabiagak eta Ainhoa Pagolak ere dominak eskuratu dituzte.



Olaberria eta Usabiaga podioan. HITZA

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria ikaztegiatarra nagusitu da Pistako Txirindularitza Espainiako Txapelketan. Lau urrezko domina eta bat zilarrezkoa lortu ditu txirindulariak. Ana Usabiagak (Tolosa CFko ordiziarra) bost domina lortu ditu, bi urrezko eta hiru brontzezko. Ainhoa Pagola tolosarrak urrezko domina bat lortu du.

Euskadiko Selektzioa izan da domina gehien jaso dituen Espainiako Pista Txapelketan, guztira urrezko 10, zilarrezko zortzi eta brontzezko bost lortuz. Mallorcan (Herrialde Katalanak) jokatu da txapelketa.

Olaberriak Mallorcan eskuratu-takoak hauek dira: jazarpena, scratch, puntuazioa eta jazarpena taldeka (Ana Usabiaga honen baitan ere bai). Zilarrezko larunbatean keirinen lortu zuen, aurretik Casas gelditu zelarrik. Usabiagak brontzezko hiru domina irabazi ditu, scratch-en, abiaduran eta keirinen. Urrezko bi eramango ditu etxera; taldekako abiadurakoa eta jazarpeneko taldeka. Ainhoa Pagolak Ana Usabiagarekin parte hartu zuen taldekako abiadurako proban eta hori izan da bere urrea.

Gizon bat atxilotua ustez beste bati erasotzeagatik

Tolosa » Igande eguerdian atxilotu zuen Ertzaizak Alde Zaharrean; Renferen apeaderoan zaurituta aurkitu zuten erasotua.

ERREDAKZIOA

45 urteko gizon bat atxilotu zuen herenegun eguerdian Ertzaizak, ustez, gizon bat egurrezko makil batekin kolpatzeagatik. Igandean bertan 09:30ak zirenean jaso zuten gizon bat, Renferen apeaderoan, zauritua zegoenaren abi-

sua. Antza, larunbata eta igandea bitarteko gauetan, 48 urteko gizona Montezkue auzorantz zihoanean gertatu zen eraso.

Herrizango Saisetrik azaldu dutenez, ustezko erasotzailea biktimaren ezaguna da, bien bizilekuak alboan baitaude. Buruan nahiz gorputzeko hainbat lekutan jaso zituen kolpeak erasotua, eta ambulanziak Asuncion klinikara eramane zuten. Igande eguerdian atzeman zuten ertzainek ustezko erasotzailea Tolosako Alde Zaharrean eta atxilotu egin zuten eraso delituagatik.

Laburrak

Kaldereroak ostiralean, Anoetan, Iruran eta Ibarren

KALDEREROAK » Loatzo musika eskolak Ibarra, Anoeta eta Iruran antolatuko ditu kaldereroak. Horrela, ostiralean, hilaren 13an, 18:00etan Ibarra plaza, Anoetako plaza eta Irurako musika eskolatik abiatuko dira kaldereroak txaranga ezberdinez lagunduz. Orain arte, Anoetako eta Irurako kaldereroak batera egin badira ere, urtero jende kopurua handitzen doala ikusita, aurten bakoitzak bere herrian egingo du, honela ibilbide motzagoa egiteko aukera ematen baitu, Loatzo musika eskolatik azaldu dutenez.

Korrika Batzordeen bilera Zizurkilen eta Villabonan

KORRIKA » Pixkanaka Korrika eskaldetik igaroko den eguna gerturatu den ari da eta antolatzaileak ari dira Korrika Batzordeak osatzen herri ezberdinetan. Horrela, Zizurkilen gaur egingo dute Batzordearen bilera. 20:00etan izango da Atxulondo Kultur Etxean. Villabonan bihar egingo dute bilera, 19:00etan. Kasu honetan balioanitzeko gelan, liburutegiaren gainean dagoena, egingo dute. Korrika-aren antolatzaileek herritar guztiak deialdia lutzatzen die Batzordeetan parte hartzeko eta bileretara joateko.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamüño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - **ZIZURKIL**
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

Kabitik atera eta eskualdeko plazetara aterako da Txolarre

Komunikabideak»

'Kabitik plazara' ekimena jarri du martxan irratia; honen baitan hainbat ekitaldi antolatu ditu; hasteko, bertso afaria izango da larunbatean.

ESTI EZEIZA

Txolarre irratia kabitik, hau da, Anoetan duen egoitzatik, plazarako bidea egitea erabaki du. Duela bederatzita urte hasi zuen hegaldia eskualdeko irratia libreak, herritarren topaleku eta gune ireki izateko helburuarekin. Orain, eredu parte-hartzaile horretatik abiatuta, jende gehiagorengana hurbiltzeko asmoz, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen hilabeteetarako.

Tolosaldeko herritarren laguntzarekin kalera atera nahi dute, jendearen bilgune diren plazetara. Bertan, indarrak biltzeko asmoa dute, komunikazio eredu libre eta parte-hartzailearen alde egiteko. Joan den asteburuan aurkeztu zuten ekimena bertako arduradun den Jon Mirandak, eta Batzorde eragileko kideek.

Lau hilabetetan banatuta, denera sei ekitaldi izango dira. Hauek «Txolarre irratiko eguneroko programazioan parte handia duten hiru arloekin lotutako ekintzak» izango dira: bertsoa, kantua eta herri kirolak. Gainera, aipatzekoa da, plazarako bidea egiteko asmo horri lotuta, eta gertutasun bila, herri



Joan den larunbatean aurkeztu zuten Txolarreko kideek 'Kabitik plazara' izeneko ekimena. ESTI EZEIZA

eta eszenatoki ezberdinetan gauzatuko dira ekintzak. Honetarako, eskualdeko hainbat eragileekin jarri dira harremanetan eta elkarlanean antolatu dituzte ekintza batzuk.

Bertsoarekin lotuta hiru ekitaldi izango dira. Mirandaren hitzetan, «hiru saiok antzekoak dira, baina aldi berean, ezberdinak».

Eskualdean kantari asko daudela ikusita, eta hauek plazetan aritzeko aukera gutxi dutenez, honen lotutako bi ekitaldi izango dira. Tolosaldeko abeslariak ezagutzera emateaz gain, mahaiaren bultzatzen diren guztiak kantuan jartzea da antolatzaileen asmoa.

Azkenik, herri kirol jaialdia

izango da martxoan. Alde batetik Urdax Muganazalaia gaztetxoa marka berria jartzeko saiatuko da. 11 urte ditu eta 105 kiloko harria igotzen ahalegin duko da. Aimar irigoienek bere adina zuenean 100 kiloko altxatzea lortu zuen, eta hau gauditua nahiko du. Bestetik, Joxe Mari Mendizabal eta Anjel Arrospe ariko dira aizkorarekin. Jaialdiari amaiera emateko, hemen gutxi ezagutzen diren Iparaldeko jokuen erakustaldia egingo dute.

Hasteko, bertsoak eta gehiago

Lehendabiziko ekitaldia larunbat honetan izango da. Honetarako bertsoa aukeratu dute. Bi arrazoi-rengatik, asteazkenero, *Zortziko aldrebesa* izeneko saio berezi bat dutelako Txolarren eta eskualdeko bertsolari guztiak dutelako harremana eskualdeko irratia libreakin.

Larunbateko bertso ikuskizun berezia izango da. Ohiko bertso afarietatik at, bertsoa baino gehiago eskainiko dute protagonistek, *Bertsoak 09+* emanaldian. Hara joan nahi duenak Zizurkil Goiko zentroan edo Aurrera tabernan eros ditzake txartelak 22 euroren truke.

» EKITALDIK

Otsailak 14, larunbata

■ **Bertsoak 09+**. 21:00etan, Zizurkil Goiko zentroan emanaldi hau estreinatuko dute. Protagonista izango dira, Iñaki Gurrutxaga, Amaia Agirre, Uxue Alberdi, Unai Muñoa eta Aitzol Barandiaran. Gai-jartzailea lanetan ariko da Gorika Tolosa. Txartelak salgai Zizurkil Goiko zentroan eta Aurrera tabernan, 22 eurotan.

Martxoak 14, larunbata

■ **Bertso bazkaria**. 14:00etan Bertso Bazkaria izango da Alegiko Kultur Etxean. Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia ariko dira bertsoetan, Alegiko bertso eskolakoekin batera. Txartelak salgai Alegiko tabernetan, 18 euroren truke.

Martxoak 15, igandea

■ **Herri kirol jaialdia**. 17:30etik aurrera Asteasuko pilotalekuan izango da jaialdia. Jose Mendizabal

aizkolariak, 62 urterekin 3 metroko diametroa duen enborra ebakiko du Anjel Arrospearen laguntzaz. Bestalde, Urdax Magunazalaia harri-jasotzaileak 12 urte bete aurretik marka ahalegina egingo du 105 kiloko harriarekin.

Apirilak 4, larunbata

■ **Bertso afaria**. 21:00etan, Tolosako lurre elkartean izango da, Jexux Mari Peñagarikano eta Bixente Gorostidi bertsolariekin.

Apirilak 25, larunbata

■ **Kantu bazkaria**. Berastegiko Urepel Elkartean izango da, 14:00etatik aurrera. Bertan izango dira herriko abeslariak.

Maiatzak 9, larunbata

■ **Kantu afaria**. Ibarren izango da ekitaldia, 21:00etatik aurrera. Herriko abeslariak izango dira bertan, kantuan.



EAJ PNV
Jakin eta egin

Ibarretxe

Orain, inoiz baino gehiago, esperientzia handiko Lehendakaria behar dugu, krisialditik aterako gaituena. Pertsonengan pentsatzen duena eta mundu osoari irekia den nortasuna defendatuko duena. Berdintasunaren alde lan egingo duena.

Gure herriarentzako bakea bilatuko duena.

Zuk nahi duzun Euskadi izan dezagun.
Orain, inoiz baino gehiago, Ibarretxe behar dugu.

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO



Azken elurtearen irudiak Kultur Etxean

IBARRA ■ Ibarra Benito Izagirre kultur etxean azken elurteak herrian utzitako irudien erakusketa antolatu dute. Guztira 45 argazki bildu dituzte, hauen artean herriko panoramika ugari, baratza elurtuak, San Bartolome plaza, udaletxea, eliza, Euskal Herri kaleko hainbat txoko, Argindegi

auzoa eta Arane baserri ingurua ikusi daitezke. Ibarra Udalaren Fototeka osatzen duten argazki hauek guztiak datorren hilaren 27ra arte ikusi ahal izango dira; goizetan, 10:30etik 13:00etara eta arratsaldeetan 15:30etik 21:00etara. R. CALVO

Laburrak

Gipuzkoako Eskola Txikien festa antolatze deia

BERROBI ■ Aurtengoan Berrobin ospatuko dute Eskola Txikietako festa eta hori dela-eta guztia antolatzeke lanean ari dira Berrobiko eskolako guraso zein irakasleak. Eguna ondo antolatu ahal izateko, hala ere, jende askoren laguntza behar duela diote eta horregatik egingo dute herri bilera bihar, asteazkena, 21:00etatik aurrera eskolan bertan.

Korrikaren bilera gaur, kultur etxean

IBARRA ■ Korrika, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia, antolatzeke bilera izango da gaur 20:00etan Ibarra Kultur Etxean. Tuteran hasi eta Gasteizen amaituko den Korrika behar bezala antolatzeke gaurko bilerara ahal den jende gehiena gerturatzeko eskatu dute.

Olanori elkartasuna agertzeko manifestazioa izan zen herrian

Lizartza ■ Gaur epaituko dute lizartzarra Entzutegi Nazionalan; egoera hau salatzeke 150 bat lagun bildu ziren igandean.



Igandean 150 pertsona bildu zen Lizartzan Olanori babesa agertzeko. R. CALVO

REBEKA CALVO

Gaur epaituko dute Peio Olano lizartzarra Entzutegi Nazionalan. 10:30ean izango da hori eta 20:00etan batzar informatiboa izango da herrian. Igandean, gainera, 150 bat pertsona bildu ziren Lizartzan izan zen manifestaldian lizartzarri babesa agertzeko.

Olano Lizartzako alkateari, PP alderdiko Regina Otaolari, ustez herio-mehatsua egiteagatik epaituko dute. Filkaltzak sei urteko espetxe zigorra, 24.000 euroko isuna eta hamar urteetan ezin Lizartzara gerturatzea eskatzen du.

Gaur epaituko duten gertaera

2007ko herriko jaietan gertatu zen. Udalbatzak Espainiako bandera jarri zuen udaletxean beherran ikurrinak zeramatzen herri-tarrak zeudela. Otaolak dioenez lizartzarrak «hil egingo zara» esan zion. Aipatu behar da Otaolaren eskaerari jarraiki Ertzaintzak plaza zeuden bizilagunen kontrako eginbideak ireki zituela.

Lizartzako alkateordearen Manuel Michelinak (PP), ondorengo adierazi du zentzu honetan: «ni bertan nintzen eta oso argi entzun nuen mehatxua. Edozer gauza jasateko prest gaude, baina hau oso gai serioa da, oso larria. Herri honetan herio-metxuak oso konstante hartzeak dira eta horregatik jarri zuen salaketa Reginal».

Salbuespenak zabor-bilketaren tasan

Ibarra ■ Hilean 700 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten familia unitateek ez dute tasa hau ordaindu beharko.

ERREDAKZIOA

Familia unitate bakoitzeko 700 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten Ibarra pertsona fisikoek ez dute zabor-bilketaren tasarik ordaindu beharko 2009. urtean.

Era berean, uraren kontsumoagatik eta estolderia zerbitzua erabiltzeagatik tasan ere hoberia izango dute.

Udalak esandakoaren arabera, famili unitate hartuko ditu etxebizitza berean bizi eta beren artean nolabaiteko harremana duten pertsonak. Famili unitate hauen kide guztiak, gainera, Ibarra

rrako erroldan egon behar direla ere esan du Udalak.

Tasen salbuespen eta hobari-eskaerak Ibarra Udalaren Gizarte Ongizate sailean aurkeztu behar dira 2009ko hilaren 28a baino lehen, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Ondasun Higiezinak

Bestalde, Ibarra familia ugari titularrentzako Ondasun Higiezinak gainera zergan ere hoberia izango da; %50ekoa aplikatuko zaielarik.

Hoberia familia ugari titular izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboek jaso ahal izango dute.

Eskaera hoberiak erreferentzia egiten dion zergaldiko hilaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da Ibarra Udalaren Gizarte Ongizate sailean, hau ere astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Migel Mari Elozegi, 'Luze'-k, finalerdietarako txartela lortu du

Leitza » Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren kanporaketan bigarren postua lortu zuen 'Luze'-k Betelun.

ASIER IMAZ

Beteluko Zigari Elkarte leporaino bete zuten herenegun 6 bertsolarik. Bertan jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren azken-laurdena.

Seikotean Migel Mari Elozegi, *Luze*, aurkitzen zen. Leitza *«gustura»* eta «ederki» egoteko adinako saioa burutu zuen, finalerdietarako txartela lortuz.

Nafarroako Txapelketaren laugarren eta azken kanporaketa hila- ren 14an, larunbatean, jokatu da Tafallan. Bertan Diego Riaño ir- tengo da oholtzara Kube Aretolan 17:30ean. Saioaren amaieran fina- lerdietan egongo diren 18 bertsola- rien izenak jakingo dira.



Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Beteluko saioko sei bertsolariak. 'Luze' ezkerretan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Beteluko saioa

«Ofizioka zortziko handian oso ongi aritu da; txikian moldatu da eta puntuari erantzuten eta kar- tzelan ondo». *Luze*-ren inguruan, berarekin oholza gainean egon

Andere Fuentes *Iturri*-ren hitzak ziren hauek.

Leitza *«gustura»* saio borobila burutu zuen Betelun herenegun, bera ere gustura geratu zen egindako lana- rekin: «Elkartea leporaino bete

zen eta oso giro beroa sortu zen. Horrek asko laguntzen du. Ofizio- ka, *Iturri* eta Aleman, azkar eta oso ongi aritu ziren, tiro onak bota zituzten eta saioa altxatu zuten; gi- roa berotu eta jendea lotu zuten.

Honek denoi egin zigun mesede, baita puntuazioetan ere. Saio hotz batean baino puntu gehiago lor- tzen dira giro beroa dagoen bate- an».

Hirugarren kanporaketa Erika Lagomak irabazi zuen. 14 puntu eta erdira, Migel Mari Elozegi, *Luze*, geratu zen. Bi hauek zuzene- an finalerdietarako sailkatu ziren. Gainontzekoek, puntuen arabera lortu ahal izango dute sailkapena.

Luze-ren esanetan, «saioaren maila politik» balore gehiago ematen dio zuzeneko sailkapena- ri. Bere buruaren inguruan berriz, azken bost urteetan urduritasuna kontrolatzen edo disimulatzen ikasi duela aipatu du leitza *«gustura»*: «lehen puntuari erantzutekoan belauak dardarka edukitzen ni- tuen. Betelun alde horretatik la- saioa aritu nintzen».

» SAILKAPENA

Beteluko saioa	puntuazioa
1. Erika Lagoma	192,5
2. Migel Mari Elozegi <i>Luze</i>	178
3. Andere Fuentes <i>Iturri</i>	175,5
4. Iñaki Aleman	172,5
5. Aritz Saraguet	169,5
6. Iñigo Ibarra	165,5



Irteera berde, txuri eta gorria

IBARRA » Haitzetan Raju Mendi Taldeak eta Bai Euskal Herriari ekimenak mendi irteera antolatu zuten Behe Nafarroara. *Euskal Herrian zehar, geu- rea ikurrina!* lelopean, herenegun 12 mendizalek egin zioten aurre egural- di txarrari. Donibane Garaziko lautada berdeak txuri kolorez jantzi ziren Behorlegiko maldetan. Mendizaleen masail gorriek puzzlea osatu zuten. Hurrengo irteera Bizkaira egingo dute martxoaren 28an. ASIER IMAZ

Oinatz Bengoetxea nagusitu da leitzairen arteko norgehiagokan

Leitza » Aurrerako pilotariak hainbat partida jokatu dituzte asteburuan. Agirre-Aristorenak hiru partida jokatu dituzte.

A. IMAZ

Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak elkarren aurka jokatu zuten herenegun Eskuz Binakako Txapelketako partida Eibarko Astele- napilotalekuan.

Seigarren jardunaldiko norgehiagokan, Bengoetxea VI-Beloki nagusitu ziren 22-17. Gonzalez-Barriolak ondorioz, lehen hiru partidak irabazi ostean azken hirurak galdu dituzte.

Partidari dagokionez, lauetan onena Ruben Beloki izan zen. Bur-

latarrak pilota ederki gozatu zuen, bikote urdinaren ezina hareago- tuz. Barriola arrotz aritu zen, bost hutssegite eginaz eta Gonzalez an- tzu tantoa amaitzerako umean.

Txapelketako sailkapen oroko- rrean Berasaluze-Begino aurki- tzen dira lehen postuan lau garai- pen eta bi porrotekin. Hauen pare- an, Aimar Olaizola eta Mendizabal II.a daude. Ondoren, lau bikote aurkitzen dira 3 garaipen eta 3 por- rotekin. Multzo honetan daude bi leitza *«gustura»*: Gonzalez-Barriola lau- garren eta. Azken postuetan Xala- Laskurain eta Asier Olaizola-Patxi Ruiz aurkitzen dira.

Zazpigarren jardunaldiari da- gokionez, Bengoetxea VI-Belokik otsailaren 14an, larunbatean, joka- tuko dute Titin III-Pascualen aur- ka jokatu dute. Otsailaren 16ean,

astelehenean, Gonzalez-Barriolak Tolosan jokatu dute Olaizola I- Patxi Ruizen aurka.

Aurrerako pilotariak

Asteburuan Leitza *«gustura»* pilotariak hainbat txapelketa jokatu dituzte. Euskal Herriko Ligan, Iera Agirre eta Saioa Aristorenak bi parti- da jokatu zituzten, 21-30 eta 14-30 galdu zituztelarik. Emakume Pilo- tari Irekian berriz, asteburuko hi- rugarren partidari, Agirre-Aristo- renak 30-9 irabazi zuten.

Zizurkilgo Txapelketan Joseba Eskuderok 6-16 galdu zuen, benja- min mailako lau eta erdiko txapel- ketan.

Nafar Jokoetan, Alduntzin-Es- kuderok 18-13 irabazi zuten euren partidari. Oier Igartua-Ibai Gilek ber- ritz 7-18 galdu zuten.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbi- tzeko prest. Deitu inongo konpro- mezurik gabe. Irene: 695 70 82 71 edo 638 94 46 04.

SALGAI

■ **Ordenagailua.** Mahai gaineko ordenagailu salgai. 2 urte. Precio ona. Deitu: 636 17 16 24.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Zizurkilgo Korrika Batzordeak bilera egingo du, 20:00etan Atxulondo kultur etxean.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Lizardi elkarteak antolatuta, Juan Jose Agirre tolosarraren *Tolosa bihotz begietan* margolan erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian.

■ **Villabona.** El Salvadorreko Segundo Montes komunitateari buruzko argazki erakusketa Gurea aretoaren sarreran ikusgai.

Hitzaldia

■ **Tolosa. AHT:** Zer ari zaizkigu ez-kutatzen? filmaren proiektzioa, eta ondoren, eztabaida AHT Gelditu! Elkarlaneko kideen partaidetzarekin, 19:00etan, Auzoetxen (Amarotz auzoa, 9 eta 10 behea).
■ **Tolosa.** Orixe institutuan DBHko 1., 2. eta 3. mailako gurasoentzako hitzaldia, 18:30ean. Gaia: drogo-menpekotasunen prebentziarako estrategiak.

Inauteriak

■ **Tolosa.** Zaldunita Bezperako danborradarako entseguak gaur, bihar eta etzi izango dira, Kultur Etxean 20:00etan, eta hilaren 17an Musika Eskolan, Bandarekin batera.
■ **Tolosa.** Igande honetan, hilaren 15ean, izango den Inauteri kontzertua prestatzeko, deialdi berezia egiten zaie Musika Bandako kide ohie, gaur eta etziko entseguetara joan daitezten, 20:15ean.
■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman daiteke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Azken eguna, ostirala, hilak 13.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu elkarteak Santillana del Mar-era irteera antolatu du hilaren 17rako. Izen-ematea, elkartearen 12 eurotan. Gosauria Quevedan, promozio komertziala eta bazkaria musika, dantza Rocio romeriarekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri iritzien erantzunik.



Subijananaren sarrera ondoan dagoen bilera gelan elkartu ziren Fundazioako kideak. I. GARCIA

Mintzola Fundazioako kideak lehenengo aldiz bilera Villabonako Subijana etxean egin dute; aurtengorako Fundazioak dituen egitasmoak eta aurrekontua landu dituzte bertan.

Lehenengo aldiz Subijanan

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Villabonako Udalak, Euskal Herriko Bertsotzale Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sortu berri duten Mintzola Fundazioa lehenengo aldiz bildu da Villabonako Subijana Etxean. Erakundeek helburu bikoitzarekin sortu dute Mintzola. Alde batetik, «euskararen ahozko tradizioaren behatoki dinamikoa izatea eta bestetik, gizarteak ahozko komunikazioaren esparruan dituen premiei erantzun egokia ematea», Foru Aldunditik azaldu dutenez.

Atzo egindako bileran Funda-

Fundazioaren zuzendaria hautatzeko oinarriak eta irudi korporatiboaren sorrera onartu dute

zioaren aurtengo egitasmoa eta aurrekontua landu dituzte erakundeek. Ahozkotasanaren alde lan egiteko beharrezkoak diren tresnak jarriko dituzte abian. Horien artean, Villabonako Udalarekin sinatutako hitzarmena. Hori esker, herriko Kale Nagusian kokatzen den Subijana Etxea izango da Mintzola Fundazioaren egoitza eta bertan garatuko dute erakunde guztiek egindako elkarlana. Fun-

2012 urtera arte luzatuko den ahozkotasanaren inguruko ikerketa lanaren inguruan aritu dira

dazioaren zuzendaria hautatzeko oinarriak ere onartu dituzte, bai eta irudi korporatiboaren sorrera ere.

Urte honetarako egitasmoaren baitan 2012. urtera arte luzatuko den ahozkotasanaren inguruko ikerketa lana dago eta horren inguruan aritu dira ere erakundeak. Dagoen eskariari erantzuna emateko ahozkotasa lantzeko ikastaroak daude aurreikusita.

Bileran parte hartu dute Maria Jesus Aranburu, Fundazioaren Lehendakaria eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputaria; Joseba Iñaki Murua Jauregui, Euskal Herriko Bertsotzale elkartearen lehendakaria; Jon Irazusta, EHUko Euskara errektoreordea; Estibaliz Alkorta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskera zuzendaria; Haritz Solupe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria eta Xavier Huizi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun sailleko aholkularia. Bileran egoteakozan Maixabel Arrieta, Villabonako alkatea, baina gaixotasun bat dela medio ezin izan du bertara joan.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak